


LIBURUA



Izenburua: 'Zenbakien guda'. **Testua eta marrazkiak:** Juan Darien. **Itzulpena:** Arkaitz Goikoetxea. **Bilduma:** Txo! **Orrialde kopurua:** 48 orrialde. **Argitaletxeak:** OQO eta Txalaparta.

Juan Darien

IDAZLEA ETA ILUSTRATZAILEA

«Batzea da handitzeko gakoa, eta ez suntsitzea»

Zenbaki txikia da bat zenbakia. Beste zenbakien ondoan, hutsala. Egun batean, haren egoera aldatzeko arma baliotsua emango dio Ken erregeak. Handinahiak itsuturik, ordea, kaltea baino ez du eragingo zenbakien artean. Merezi ote du horrela bizitzea? Hainbat balioaren inguruan hausnartzeko bidea ematen du Darienen liburuak.

Bakarrik sentitzen da bat zenbakia. Zer dela eta?

Zenbakirik txikiena da bata, eta txiki sentitzen da beste zenbakien ondoan. Alboan zenbaki handiak ikustean, handiago izan nahi du. Egun batean, Ken erregea agertuko da. Arma berri bat egiteko planoak emango dizkio: ken ikurra. Arma oso boteretsua da ken. Hura hartu, eta alboko zenbakiak txikitzeari ekingo dio bata, guztiak zero bihurtu arte. Zeroak esklabo bihurtuko dituzte, Ken erregearen aginduz. Zeroak, ordea, matxinatu egingo dira. Zeroak erasotzean, ezin dituztela suntsitu ohar-tuko dira bata, zero ken bat zero baita.

Bakerik izango al dute zenbakiak?

Ken ikurrak zeroei ezin diela deus egin ohar-tzean, zeroak matxinatu egingo dira, eta Ken erregea bidaliko dute. Zenbakiak bakean bizi nahi dute, eta bat zen-

bakiei barkatzea erabakiko dute zeroek. Hala, zenbakiak euren artean biltzen eta elkartzen hasiko dira, eta handi bihurtuko dira. Bata eta zeroaren elkarketatik, zenbaki handiago bat sortuko da: hamarra.

Zenbakien istorio simple batekin, mezu sakonak igorri dituzu.

Bai, halaxe da. Aniztasuna onartu eta errespetatu egin behar dela aldarrikatu nahi izan dut. Gerrari eta bakeari buruzko hausnarketa ere egiten du. Eta denok elkartuz eta batuz gero, handiago bihurtu gaitzkeela erakutsi nahi izan dut. Azken batean, handitzeko eta aurreratzeko gakoa batzea eta elkartzea da, eta ez suntsitzea edo kentzea. Bide batez, matematikako unibertso hurreratu nahi izan ditut haurrak, istorio simple honekin.

Matematika lantzeko balio du, beraz?

Egia esan, ez da eskola liburu bat, ezta liburu oso didaktiko bat ere. Irakurtzeko liburu bat da; irakurtzeko eta ongi pasatzeko liburuak.

Testua zein ilustrazioak zureak dira, ezta?

Bai, hala da. Berez, ilustratzaile naiz, eta hauxe da idatzi nuen lehen liburuak; 2006-2007an idatzi nuen. 1st CJ Picture Book Awards nazioarteko ilustrazio saria eskuratu zuen liburuak. 250 lanen artean bost lan hautatu zituzten; horietako bat, nirea. Modu digitalean egiten ditut marrazkiak. Kartoizko ehundurak eta beste eskaneatu egiten ditut, eta, ondoren, ordenagailu bidez lantzen ditut. Norberak testuak eta marrazkiak egitea abantaila da, istorioa sortzen zoazen heinean, irudikatzen edo gorputzen baituzu ipuina.

